

CALASANZ KIDEAK

Nori zuzenduta: Haur Pastoralta (6 eta 8 urte bitartekoentzako)

Jarduera: "Misioa eta familia. Nire Aztarna"

Gaia: Jarduera honek **Itaka Escolapios-en hedapena, behartsuenentzako** zerbitzua eta **Jesusekin dugun lotura ("Zure Sustrai")** lantzen ditu.

Helburua:

Haurrek identifika eta ezagutu ditzatela Itaka Escolapios-ek haur eta nerabeentzako etxeak mantentzen dituzten lekuak, eta uler dezatela beren **konpromiso pertsonalak eta lan horri laguntzeak ("sustrai")** aldaketa globala **eragiten duela**.

Materialak

- Paper edo kartoi batean marraztutako **mapamundi erraldoi** bat (herrialdeetako izenik gabe).
- **Koloretako post-it-ak** edo oin-aztarna formako paper txikiak ("Misioaren aztarna").
- San Jose de Calasanz **eta** Jesusen **argazki sinpleak**.
- Errotulagailuak.
- Kanpainaren HARRERA ETXE-en fitxa, gure proiektuak ezagutu eta azaltzeko. (proiektu guztien fitxak [hemen](#))
- Kanpainaren kartela ([hemen](#))

Jardueraren garapena: (ordu 1 gutxi gorabehera)

1. **Sustrai (Jesus eta Calasanz):**

- Leloa gogoratuz hasiko gara: **"Zure Sustrai"**. Hurrei sustrai sendoak dituen zuhaitz txiki bat marrazteko eskatuko diegu. Marrazkitik abiatuta, Jesusek gure bizitzan duen garrantzia azalduko dugu, gure sustrai bezala.
- Maparen erdian **Jesus** eta **Calasanz argazkiak** jarriko ditugu. Azalduko diegu beraiek direla gure proiektuen **erdigune eta motorra** (Calasanz Kideak osoaren sustrai).

2. **Itaka Escolapios: 25 urte Oinez:**

- Itaka Escolapios-ek hezkuntza eta ebanjelioa leku askotara eramaten hasi zenetik 25 urte ospatzen ditugula azalduko dugu eta kanpainaren karteletik abiatuta dauden proiektu guztiak izendatuko ditugu ([PDF lotura](#)).
- Bereziki, harrera-etxeak aurkeztuko dizkiegu, zer diren eta bertan dauden haur eta gazteentzako zein garrantzitsu diren azalduz.

CALASANZ KIDEAK

- Eskolapioen 3-4 presentzia ezberdinetako harrera-etxeetako argazkiak erakutsiko ditugu, non dauden esan gabe.
3. **Misioaren Mapa:**
- Eskatu hurrei banan-banan argazki bakoitza zein kontinentetako den asmatzen saiatzeko eta munduko mapako leku egokian itsasteko.
 - **Mezu garrantzitsua:** Azaldu Itaka Escolapios-ek Calasanzengan inspiratutako laguntza sare global batean egiten duela lan, haur eta gazte ahulenengana iritsiz
4. **Nire Zerbitzuak uzten duen aztarna:**
- Haur bakoitzari "**Misioaren aztarna**" (*post-it*) emango diogu.
 - Eskatuko diegu, aste honetan egiteko konpromezua hartzen duten zerbitzu-ekintza bat **idatzi edo marrazteko**(adibidez: "Nire amonari lagundu", "Nire merienda elkarbanatu", "..-en boluntario izan"...).
 - Haur bakoitzak bere aztarna mapan itsatsiko du, sinbolikoki misio guneren batekin konektatuz.
 - **Sustraiarekin lotura:** Amaitzeko: "**Jesus**, gure sustraia izanik, bera da gure **aztarna** sostengatzen duena. Zerbitzu-aztarna handi edo txiki bakoitzak Calasanzeko zuhaitzak munduan hazten jarrai dezan laguntzen du".

Eranskinak:

1. Proiektuetako irudiak.
2. Munduko mapa.

CALASANZ KIDEAK



Hezkuntza ez-formala Espainia Albacete.



ARTES ESPAÑA VALENCIA

CALASANZ KIDEAK



CALASANZ VENEZUELA BARQUISIMETO MUGIMENDUA



Kamerun jantokiko ikastetxea.

CALASANZ KIDEAK



ARTEA ETA SOZIALIZAZIOA BRASIL BELO HORIZONTE

CALASANZ KIDEAK



VENEZUELAKO JANTOKIAK



HEZKUNTZA EZ FORMALA BRASIL

CALASANZ KIDEAK

